

*in*fraganti AITZOL ITURBE

AndalorrEKO ogi ekologikoa egiten du Aitzol Iturbe antzuolarrak Baztango Gartzain herrian. Duela urtebete inguru martxan jarritako proiektua da, eta bertan izan gara bere lana ezagutzeko. Gainera, nekazaritza ekologikoan ere badu esperientzia, eta, Biolur elkarteko kidea denez, lehen sektorearen egoeraz ere hausnarketa bat eskatu diogu.



Udaberrian sartu berri-tan iritsi ga-ra Baztango Gartzain he-rrri txiki be-zain ederrera. Autotik irten aurretik termometroari bota-tako azken begiradak 24 gra-dutan gaudela dio 17.30 jo-tzear direla. Goxotasun ederra, martxoa amaitzeko oraindik hamar egun falta di-renean, baina badakigu ez de-la parte oneko eguraldia.

Hauza mendia zelatan du-gula, eguzkitan solasean dau-den herritarrek adeitsu adie-razi digute Aitzol Iturberen okindegia non dagoen. Ber-tan aurkitu dugu antzuolarra, pilotaleku txikiaren alboan dagoen etxe dotorean, egune-ko azken lanak amaitzen. An-dalorrEKO ogi ekologikoa egi-ten du Aitzolek, duela urtebete martxan jarritako proiektua da, eta parez pare ireki dizkigu ateak bere jardunaren berri emateko.

«Guk ogi ekologikoa egiten dugu. Zerealek abiatzen ga-ra. Zereal pikorra erosten du-gu, ia dena zuzenean Euskal Herriko ekoizleei. Eta ezauga-rri bezala aipatu liteke ama ore naturala bakarrik erabil-tzen dugula, orantza naturala bakarrik, fermentazio nahiko luzeetan, eta egurrarekin be-rotzen den labea erabiltzen dugula», azaldu digu azken oreak mahai gainean aton-tzen dituen bitartean.

Astean bi egunetan egiten omen du ogia, astearte eta os-tiraletan, eta horiek izaten omen dira lan aldetik egunik potenteenak. Goizaldeko or-du biak aldera hasten omen da lanean hamaika bat ordu-ko jardunari ekiteko. Norbe-rak aukeratutako lanean, or-dea, aldapa samurragoa da,

eta Frantzia aldetik ekarrita-ko errotak nola funtzionatzen duen ere erakutsi digu.

BIOLURREN BABESA

Biolur elkarteko kidea da Ait-zol, eta nekazari lanetan urte batzuk emandakoa. Kontatu digunez, txikia zenean ez zuen bereziki lehen sektorean jar-dutearekin amesten, baina eli-kadura burujabetzarekiko ar-dura aspalditik datorkio. «Une batean elikadura burujabetza-ren kontzientzia hartu nuen, eta horrek motibatuta, proiektu bat ipini genuen martxan Antzuolan. Lagun batekin jarri nuen martxan, eta zazpi urte eman nituen bertan. Baina ez lurrak ez baserria ez ziren gu-reak, eta bertan behera geratu zen proiektu hori», gogoratu du gipuzkoarrak.

«Bikotea hemengoa denez, hona etorri ginen bizitzera. Le-kua geneukan eta okindegia martxan ipintzea pentsatu ge-nuen bikoteak eta biok. Kon-tua da, baratzean genbiltza-nean, Andoni proiektuko beste kidearen ekimenez, okintzan aritu ginela urte eta erdiz, modu nahiko preka-rioan bazen ere. Esku pixka bat hartu genuen. Eta gero Ha-ristizabalen izan nintzen ber-tako kideekin ikasten. Itsason dagoen baserri bat da, eta urte asko daramatzate ogia modu honetan egiten. Luxua izan zen beraiekin ikasi ahal izatea. Ikasitako hori hemen aplikatu nuen. Oraintxe urtebete egin-go dugu», jarraitu du Iturbek.

Alde horretatik, ekologikoa-ren alde egitea normaltasun baten barruan sartu behar dela aldarrikatu du. «Guk irten behar izaten dugu esatera gu-rea oso ona dela, baina gurea askoz hurbilago dago sinpleta-sunetik eredu industrialia ja-rraituz ekoizten dutenena

baino. Ulertzen dut gure alde-tik eman behar dugula gurea ezagutzera, baina argi utzi behar da nik egiten dudana ogi normala dela, hemen beti egin izan den bezalakoa, makineria eta metodo finxeagoekin bada ere. Eta gure harrotasuna horixe da: oinarritzko elikagai bat egiten dugula, osasuntsua».

Horrelako proiektu bat mar-txan jartzerako orduan sortzen diren zailtasunen inguruan gal-detuta, antzuolarrak bereziki eskertzen du Biolurreko okin taldearen laguntza eta babes-a. «Urteak daramatzate lanean, formakuntzarako jakintza par-tekatzen edota, besteak beste, zereal erosketak elkarrekin egi-ten. Ni babes horrekin hasi naiz eta ezinbestekoa zait eskerrak ematea. Eta, gainera, zortea izan nuen talde horretako kide batekin lan eginez ikasteko, Ha-ristizabalen. Beraz, proiektua berria da, baina ez naiz hutse-tik hasi. Banuen laguntza, bani-tuen erreferentziak, eta zereala erosteko prozesu garrantzitsu horretan ez naiz nire kasa hasi, babes batekin egin dut».

Hala ere, onartzen du berak ere izan duela ekintzaileek as-kotan aipatzen duten gehie-gizko burokraziari aurre egin behar neketsu hori. «Bai, topi-koa dirudien arren, exijentzia administratiboen aurrean iza-ten duzu sentsazio hori: ‘Nik ogia egin nahi dut, ez paperak’. Uste dut arindu beharko litza-tekeela hori».

BAZTANGO SOZIOEKONOMIA

Edozein modutan, buruhauste nagusia beste bat zen. «Niri kezka sortzen zidana zen ea egindakoa saltzeko gai izango nintzen, gutxieneko kopuru bat behintzat, proiektua bide-ragarria izateko. Hasi arte ezin duzu jakin, eta nik uste dut horrelako proiektu bat mar-

txan jartzen duenarentzat ezi-negon handiena hori izaten dela. Oraingoz alde horretatik nahiko ongi doa, eta hori ez da nire meritua bakarrik, Baztan-go sozioekonomiaren ezauga-rien ondorio ere bada. Merka-taritza-gune handien kaltea nabarmena den arren, badau-de denda txikiak, jendeak ohi-tura du oraindik denda txikie-tan erosteko, bertako gauzak erosteko...», eskertu du.

«Hasieran lagunen eta ezagu-nen bitartez hasi behar duzu, ingurukoekin batez ere. Pro-duktua kostu prezioan eman jendeari ezagutzeko, ahoz aho-koak ere asko funtzionatzen du hemen... Eta poliki-poliki zabal-tzen joan. Irailean denda batera ogia eramaten hasi nintzen, adibidez», aipatu du lehen urrats horiei buruz.

Eta norbaiti probatzeko go-goja jarri bazaio, esan behar da oraingoz Baztan aldean soilik saltzen duela. «Bi bide daude. Alde batetik, salmenta zuzena: niri eskatu eta niri jaso. Edo bestela, dendatik: dendan es-ka-tu eta bertan jaso. Eta gero, ostatuak daude. Lau ostatuk hartzen didate ogia, denak he-men ingurukoak. 8.000 biz-tanle gara eta, egia esan, ez naiz ateratzen Baztandik. Lana da, noski. Hasieran denda ba-tera joan, zure burua aurkeztu, probatzeko eman, noiz eta no-la eskatu ikasi... Jada denda bat martxan jarritakoan, erraza-go da dena: badakite noiz es-ka-tu. Komertzial lana ere egin behar duzu apur bat».

Zentzu horretan, urtebeteko ibilian bide berriak irekitzeko erabakia ere hartu dute. «Bi bezero mota daudela esango nuke. Alde batetik, produktu ekologikoa nahi duena, osa-suntsua delako. Eta bestetik, etxe-ogia edo baserriko ogia bezala ezagutzen dugun hori



Aitzol Iturberen bi argazki. Lehen orrikoan, ogia labetik ateratzeko erabiltzen duen paletarekin; lerro hauen gainekoan, ogiak eskuan hartuta, Gartzaingo kanpandorrea eta pilotaleku txikia atzean dituela. Iñigo URIZ | FOKU

nahi duena, baina ez agian be-reziki kontzientzia ekologikoa duelako. Zorionez, bi bezero motetara iristea lortu dugu, eta hori garrantzitsua zen gu-retzat. Hemen inguruan agian ogi ekologikoa bereziki nahi duen jende kopurua ez da hain handia, eta horregatik, ogi zuria ere egiten dugu. Ber-din egina, baina ogi integrala izan beharrean, ogi zuria. Go-zoagoa, eta errazagoa jaten. Egia esan, jatetxe batek eska-tuta hasi nintzen, eta bidea ireki digu beste jende mota batengana iristeko».

Eta nekazaritzarekin aldera-tuz, Aitzolek onartu digu abantaila batzuk badituela okindegiak. «Baratzaren errentagarritasuna okindegia-rena baino txikiagoa dela esango nuke, nik Antzuolan

egiten nuen baratzarena baino bai, behintzat. Azkenean, bara-tzean lurrarekin ari zara la-nean, eta askoz lotuagoa dago eguraldiari eta urte sasoiari. Baina bueno, nik uste dut lur-rari lotuta bizi behar dugula eta lurraren erritmoak erres-petatuz. Gure kasuan, orain zereal-zaleek kentzen digute lan hori dena, eta guk egin behar duguna da tratu ona izan beraiekin, ekoizpena el-karrekin planifikatzen saiatu eta prezio egokiak ordaindu. Gerta liteke arrazoiren batega-tik hemen inguruan zerealik gabe geratzea, baina printzi-pioz nik ez daukat egunero eguraldiari begira egon beha-rrik, zentzu horretan. Alde ho-rretatik, nire aitortza osoa adierazten diet nekaraziei, gu-re errazagoa da».



OKERREKO EREDUA BULTZATUZ

Baina fokua apur bat irekiz, eta Biolurkide izateak ematen dion ikuspegi orokorrago batetik, nekazaritza ekologikoaren eta ekoizle txikien egoeraz ere galdetu nahi izan diogu Iturberi. Eta norbaitek pentsa lezakeenaren kontra, argi utzi du gaur egun erakundeek ez dutela eredu hori babesten.

«Babesik ez zaio ematen. Gutxietsi egiten da, agintariak gutxiesten gaituzte. Ez da zehazki nire kasua, orain ez naizelako nekazaria, baina erakundeek gutxietsi egiten dituzte Biolurrekoak bezalako nekazari ekologiko gehienak. Europako dirulaguntza politika guztia intentsifikaziora bideratzen da, agroindustriari mesede egitera. Dirulaguntza guztiak bideratzen dira ekoizleek asko ekoiz-

tera, gero merke saldu dezaten, horrela, bitartekariak eta saltoki handiek lehengai merkeak lortzen dituztelako. Intsumo eta makineria askoko eredu honek negozio ederra ematen die agroindustriako multinazionaliei. Hori bultzatu da, eta nekazarien gehiengo bat hor dago. Aldiz, joko horretan sartu ez dena erakundeen aldetik erabat ahaztua dago eta gutxietsia da», baieztatu du.

«Begiratu besterik ez dago zenbat milioi sartzen diren agroindustria jakin bat bultzatzeko politiketara. Eta hortik irtetzen denari ezertan ez zaio laguntzen. Adibide konkretu bat jarriko dizut. Ukrainako gerra zela-eta, pentsuen prezioa igo zelako dirulaguntzak planteatu ziren behi-buru bakoitzeko, baina hogeitak burutik gora dituztenentzat bakarrik. Hortik behera dituztenei ezer ez. Noski, badakigu hogeitak burutik behera dituenak bere bolumenagatik agian badituela beste bide batzuk salmenta zuzena egiteko. Baina dena horrela da. Dirulaguntzak ematen dira handitzeagatik, zenbat eta hektarea gehiago orduan eta laguntza gehiago. Egin liteke kontrakoa, eta saritu bazkidetza adibidez, zenbat eta produkzio bazkidetzaileagoa orduan eta laguntza gehiago. Edo lur gutxi erabiltzea saritzea, eskulana saritzea... Askotan entzuten dugu: 'Errentagarria izateko, handia izan behar da'. Ez, ez, hemen egoera hau da: 'Dirulaguntzak jasotzeko, handia izan behar da'. Hori da afera», jarraitu du.

Horregatik, eta nekazarien protestek zeresan handia eman duten honetan, Iturbek argi du arazoari irtenbidea emateko nekazaritza politika ereduak errotik aldatu behar dela. «Nafarroan, adibidez, 140 eragilek sinatutako manifestu

«Europako dirulaguntza politika guztia intentsifikaziora bideratzen da. Asko ekoiztera, gero merke saldu eta bitartekariak eta saltoki handiek lehengai merkeak lortzeko»

Nekazaritza ereduak da, Iturberen ustez, errotik aldatu behar dena. Zaila da egun batetik bestera lortzea, baina, bitartean, badira gertu adibide interesgarriak, Ipar Euskal Herrikoa adibidez

bat atera dute, tartean gure hornitzaileak, elikadura burujabetzaren norabidean doan nekazaritza politika eskatuz. Logika osoa delako aldatu behar dena. Dena lotuta doa. Zuk hektarea asko edukitzeagatik dirulaguntza asko jasotzen dituzu, baina hektarea asko baldin badituzu agian pestizidak beharko dituzu lan hori errazteko, edo beharko duzu makineria asko. Gaur egungo nekazaritza ereduak, beste arlo denetako ereduak bezala, sistema kapitalistari eta interes pribatu jakin batzuei erantzuten die. Eta hor barruan, beste jarduera ekonomiko guztietan bezala, herriar xumeok gaude, tartean baserriar asko».

PROIEKTU INTERESGARRIAK

Dena ez da beltza, ordea, eta inspirazio iturri izan daitezkeen esperientzia batzuk hartu ditugu hizpide solasaldia amaitzeko, egin daitekeenaren adibide modura. Ipar Euskal Herrian egin den lana nabarmentzen du, esaterako, Aitzol Iturbek. «Duela 30 bat urte, intentsifikazioa indartsu sartzen hasi zenean, ELB-k aurre egin zion horri eta beste ildo bat jarri zuen abian, hor ez sartzeko eta bere diskurtsoa defendatuz: hobe nekazari txiki asko handi gutxi baino. Lurzaindia sortu dute, inkubagailuak, La-

borantxa Ganbara... Asmatu egin dute eta erreferente bat dira guretzat».

Nafarroako Hazialdeko elkar-tearen lana ere esperientzia interesgarria da. «Hainbat nekazari txiki elkartu dira zerealen garbiketa, komertzializazioa eta abar denek batera egiteko, marka berdinarekin. Herri proiektu interesgarria da eta baloreen jartzea komeni da».

Edota Biolur elkarteak Amillubi baserrian eta bere lurretan martxan jarri nahi duen proiektua, *crowdfunding* bidez erosteko prozesuan dagoena. Iturbe ez dago talde eragilean, baina ezagutzen du ekimena, eta argi dio ezin dela aukera galtzen utzi. «Lur horiek babestu egin behar zirelako eta nekazaritza erabilera bat ematearen alde. Gaur-gaurkoz, jateko guztia kanpotik ekartzen denean, motibazio garrantzitsuena hori da: lur horiek jarri behar ditugu bertako biztanleen elikadura osasuntsua bermatzeko, eta behar diren baliabideak martxan jarri».

Eta beste aspektu garrantzitsu bat ere nabarmentzen du. «Nekazarien sindikatuak askotan entzuten ditugu nekazarien defentsa egiten, baina Biolurrek planteatzen duena da elikadura osasuntsurako komunitatearen eskubidea. Eta hor, nekazariak ez diren herriarrak ere sartzen dira. Biolurkide dira, adibidez, profesionalki elikagaiak ekoiztera dedikatzen ez diren herriarrak ere. Ardura hori hartzen dutelako. Elikadura osasuntsurako eskubidea nola bermatzen da? Ba lurrean errotutako nekazaritza dibertsifikatu batekin».

Aipatutakoak buruan eta inguruko parajeekin txundituta, 25 gradutan utzi dugu Garzain, lurrari errespetu gehixeago zor diogula jabetuta.